

# MARTXOAK 8 LEHIAKETA

## BIOGRAFIA

Maialen Lujanbio Zugasti (Hernani, Gipuzkoa, 1976ko azaroaren 26a) bertsolaria da. Bertsolari Txapelketa Nagusia bitan irabazi du. 2019ko Korrikan, berak idatzi eta irakurri zuen mezua.



## IBILBIDEA

Arte Ederretan lizentziaduna da.

Euskal Kulturgintzaren Transmisioa graduondokoa ikasi zuen Mondragon Unibertsitatean eta bertan ikasitakotik abiatuta, 2010ean *Hau Koaderno bat zen* liburua idatzi zuen.

Ikastolan zegoenean hasi zen bertsotan lagunen artean eta 11 urterekin parte hartu zuen lehendabiziko aldiz txapelketa batean: Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketan. 15 urte zituela Andoni Egaña, Anjel Mari Peñagarikano eta Kristina Mardarasekin batera Hondarribian abestera gonbidatu zuten eta geroztik gelditu gabeko ibilbidea egin zuen.

2009 eta 2017an bertsolarien txapeldun nagusia izan zen, baina beste 6 urtez finalista ere izan da, tartean birritan txapeldunordea izanik.

2018az geroztik Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko taldeko kidea da.

## GALDERA

**Zein urtetan hartu zuen Maialenek parte lehendabiziz txapelketa batean?**